

Europako Biofisika Kongresua - ESAB 2024 Donostian, CIC biomaGUNEren gidaritzapean

Frantzia, Portugal eta Espainiako biofisika-erakundeek elkarrekin antolatu dute kongresua, eta Kursaalaren izango da, ekainaren 5etik 7ra

Gorabidean diren arlo batzuetarako soluzioak lortzeko biofisikaren ikerketan egindako puntako ekarpenak aurkeztuko dira, hala nola osasun pertsonalizaturako, energiarako eta jasangarritasunerako

Donostia, 2024ko ekainaren 5a. Gaur hasiko da Europako Hegoalde Atlantikoko Biofisika Kongresua – [ESAB 2024](#) (European South Atlantic Biophysics Congress). Donostiako Kursaal izango du egoitza, eta ekainaren 7ra arte luzatuko da. Espainiako, Frantziako eta Portugalgo biofisika-erakundeek ([SBE](#), [SFB](#) eta [SPBf](#)) elkarrekin egindako ahaleginaren ondorioz lehenbizikoz antolatutako kongresua da, eta zientzia-komunitateari biofisikaren arloko ikerketarik interesgarrienak aurkezteko gune bat eskaintzea du xede. CIC biomaGUNE da tokiko antolatzaile nagusia, Donostia International Physics Center (DIPC), CIC bioGUNE, Biofisika Institutua eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) lankidetzarekin.

Kongresuaren **inaugurazio-ekitaldia** gaur izango da, **14:30ean**, eta parte-hartzaileen artean izango dira **Eneko Goia**, **Donostiako alkatea**, eta hiru biofisika-erakundeetako lehendakariak: **José María Valpuesta** (SBE), **Coralie Bompard** (SFB) eta **Armindo Salvador** (SPBf); halaber, haiekin batera egongo da **Aitziber López Cortajarena** Ikerbasque irakaslea, zeina CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoa eta kongresuko antolakuntza-batzordeko eta batzorde zientifikoko lehendakaria baita.

Punta-puntako ikerkuntza

ESAB 2024 kongresuak biofisikaren arloan garatutako ekarpenik berritzaileenak ezagutaraziko ditu, eta puntako ikerketa-ildoen sorta zabal bati emango dio ikusgarritasuna, ildo horiek esperimentalak nahiz teorikoak izan. Cortajarena irakasleak azaldu duenez, “biofisikaren arloan, teoriak eta metodo fisikoak aplikatzen dira sistema biologikoen funtzionamendua ulertzeko. Kongresu honetan parte hartuko duten zientzialariak arlo desberdinetakoak dira, hala nola kimika, biokimika, biologia eta fisikakoak; alabaina, elkarrekin egiten dute lan ezagutzaren mugetan arakatzeko, bai eta biofisikaren arloan translazio-ikerketa egiteko ere, prozesu biologikoak ulertu eta zenbat eremutan, haien artean biomedikuntzan, aplikazio berriak garatzeko”.

Honela azaldu du CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoak: “Biofisikako ikerkuntzari dagozkion punta-puntako ekarpenak aurkeztea espero dugu, eta irtenbideak bilatzea gorabidean diren arloetarako; besteak beste, osasun pertsonalizaturako, energiaren arlorako eta jasangarritasunaren arlorako”. ESAB 2024 kongresuak eremu horretan maila gorenean dauden [hizlarien](#) zerranda luzea osatu du: besteak beste, Eva Nogales irakaslea (Kaliforniako Berkeley Unibertsitatea, AEB), Elizabeth Meiering irakaslea (Waterlooko Unibertsitatea, Kanada) eta Álvaro Sanchez irakaslea (Biologia Funtzional eta Genomikoaren Institutua, CSICen zentro mistoa eta Salamancako Unibertsitatea). Horien guztien ekarpenek ardatz izango dituzte biofisika eta osasuna, zelulen eta ehunen biofisika, bioirudien teknikak, osasun-arloko biofisika konputazionala, eta abar. Horren adibide da “Eva Nogales irakaslearen hitzaldia; izan ere, nazioartean aitzindaria da zelulen osagaiak maila atomikoan ikusteko kriomikroskopia elektronikoa erabiltzen”, aipatu du Cortajarenak.

Euskadin sortutako berrikuntza, zientzia eta teknologiaren nazioarteko erakusleihoa

CIC biomaGUNEren eta haren zuzendari zientifikoaren xedeetako bat da “Euskadin egindako ikerketarekiko elkarreragina sustatu eta haren ikusgarritasuna handitzeko ingurune egokia sortzea”. ESAB 2024 kongresua aukera paregabea izango da tokiko antolakuntza-batzordean parte hartu duten zentroetan (CIC biomaGUNE, DIPC/UPV-EHU, CIC bioGUNE eta Biofisika Institutua/UPV-EHU) sortutako berrikuntza, zientzia eta teknologia sustatu eta nazioartean ikusgarritasuna emateko.

Cortajarena irakasleak puntako ikerketak egiten ditu biofisika aplikatuaren arloan, eta, egun, Espainiako Biofisika Elkarteko lehendakariordea da (Sociedad Española de Biofísica-[SBE](#)), baita Europako Biofisika Elkarteen Batzorde Exekutiboko kide ere ([EBSA](#)). Postu horietatik, lanean dihardu nazioarteko elkarte zientifikoaren arteko kolaborazioak indartzen, ikertzaile gazteek biofisikaren garapenean parte har dezaten sustatzen, eta zientzian berdintasuna bultzatzen. Elkarte horietako kide aktibo gisa biofisika sustatzeko egin dituen beste hainbat jardueraren artean, kongresu hau antolatzen ere aritu da.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE Biomaterialen Ikerketa Kooperatiboko Zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, baita haien aplikazio biomedikoetan ere. 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.